

## **BERRESPEN-PARTEAK BETETZEA**

### **1. EDOZEIN PARTETAN BETI BETE BEHARREKO DATUAK**

**ZEHAZTU JARDUKETA:**

**JARDUKETA-DATA:**

**SINADURA: (ESKANEATUTA EDO DIGITALA)**

### **2. DEMANDA JARTZEKO IZENDATZEN DENEAN BETE BEHARREKO DATUAK**

Berrespen-partea demanda onartu eta hurrengo datuak jakinarazi ondoren bidaliko da (datu horiek berrespen-partean beteko dira).

**PROZEDURA:**

**PROZEDURAREN ZK.:**

**EPAITEGIAREN ZK.:**

**IZO:**

### **3. AURRETIAZKO EGINBIDEEN PROZEDURA PRESAKO EGINBIDEEN PROZEDURA BIHURTZEN DENEAN BETE BEHARREKO DATUAK**

Guardia-egunean jorratzen diren auzigaietan, eta aurretiazko eginbideen prozedura presako eginbideen prozedura bihurtzen denean, berrespen-partean hau adierazi behar da:

**PRESAKO EGINBIDEEN PROZEDURA ZK.:**

### **4. EPAIAREN AURKAKO APELAZIO-ERREKURTSOETAN BETE BEHARREKO DATUAK**

Abokatuak apelazio-errekurtsoa aurkezten duenean edo epaiaren apelazioaren aurka egiten duenean, adierazi, berrespen-partearekin batera:

**APELAZIO-ERROILUA/APELAZIO-ERREKURTSOA**

### **5. ATZERRITARTASUN-ARLOAN, KANPORATZEAK ALEGATZEKO PROZEDURETAN BETE BEHARREKO DATUAK**

Honako hauek aurkeztu behar dira berrespen-partearekin batera:

**KOMISARIAN AURKEZTUTAKO ALEGAZIO-IDAZKIAREN LEHEN ORRIA ETA FAXA JASO IZANAREN FROGAGIRIAREN KOPIA, EDO EMAILAREN HARTU-AGIRIA EDO ERREGISTRO ELEKTRONIKO BIDEZ AURKEZTU IZANAREN JUSTIFIKAZIOA, SISTEMAK ELKARKONEKTATZEKO SISTEMAREN (SIR) BIDEZ, EDO EBAZPEN-PROPOSAMENA.**

## 6. JARDUKETA ESTRAJUDIZIALETAN BETE BEHARREKO DATUAK

Jarduketa estrajudizialen berrespen-parteeetan, berrespen-partearekin batera honako dokumentazio hau ere aurkeztu behar da, hala badagokio:

- **Aholkularitza, auzian aritzeko asmoan atzera eginez.** Atzera egite hori interesdunak eta ofiziozko abokatuak izenpetutako dokumentuan azaldu beharko da; dokumentua dagokion elkargoak ikusi eta onetsiko du.
- **Aholkularitza, elkar aditzeko akordioa emanez.** Horren egiaztapena alderdiek eta haien abokatuak izenpetutako dokumentuaren bitartez egingo da, eta bertan berariaz azalduko da alderdien arteko akordioa lortu dela, auzia saihestuz. Dokumentu hori dagokion elkargoak ikusi eta onetsiko du.
- **Abokatuaren idazki arrazoitua,** uzi nagusiaren **funtsik eza adieraziz,** Doako Laguntza Juridikoaren urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 32. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoarekin bat etorritz.

Eusko Jaurlaritzak emandako dokumentuak erantsi dira, atzera egiteko edo akordio transakzionala egiteko igorri beharrekoak.

- [ATZERA EGITEA](#)
- [TRANSAKZIO ESTRAJUDIZIALA](#)

## 7. FAMILIA-EPAIA BETEARAZTEKO PROZEDURETAN BETE BEHARREKO DATUAK

Familia-prozesuetan, epaia urtebetera betearazten bada, dagokion modulua zenbatuko da. Beraz, auzigai horietan berrespen-partea aurkeztu behar da, eta honako hau adieraziko da:

EPAIAREN DATA:

## 8. BERRESPEN-PARTEEN AURKEZPENA

Berrespen-partek parte horretan justifikatutako jarduketa egin den hiruhilekoan bertan aurkez dadila eskatzen da. Era berean, urtean zehar egindako jarduketan berrespen-partea guztiak aurkezteko hiruhilekoaren azken egunera arte itxaron ez dezazuela eskatzen dizuegu.